

Cubainformación eta Euskadi-Cuba elkarteko kideei sei urteko kartzela zigorra ezarri nahi diete

IZARO VILLARREAL LAUROBA :: 02/02/2024

Akusazio partikularrak 50.000 euroko kalte-ordaina ere eskatu du Cubainformacióneko José Manzaneda kazetariaren aurka, erreportaje batean emandako edukiagatik.

Otsailean izango da, Madrilen, Cubainformación hedabidearen koordinatzaile eta kazetari José Manzanedaren eta Euskadi-Cuba elkartearren legezko ordezkaritzaren aurka Prisoners Defenders erakunde “anticastristak” aurkeztutako kereila kriminalaren epaketa. Elkarte hori, 2020ra arte, www.cubainformacion.tv domeinuaren legezko jabea izan zen. Akusazio partikularrak sei urteko kartzela zigorra eta 50.000 euroko kalte ordaina eskatu du, “*Crear una crisis sanitaria en Cuba: objetivo de la guerra contra su cooperación médica*” erreportajearen edukiagatik. Fiskaltzak eta defentsak absoluzioa eskatu dute, deliturik ez dagoela argudiatuta.

2020ko urrian argitaratu zuen hedabideak lan hori. Bertan, Prisoners Defendersen lana deskribatu zuten eta AEBetako Gobernuko Estatu Departamentuarekin koordinatuta, Kubako mediku lankidetza hitzarmenak suntsitzeko saiatzen ari zela azaldu zuten.

Erreportajearen arabera, helburuetako bat litzateke uhartearren aurkako blokeo ekonomikoa osasun arloan aplikatzea, Kubako Osasun Publikoko Ministerioak zenbait naziotako akordio medikoengatik lortzen dituen diru sarrerak moztuta.

Dirua biltzen ari dira epaketari aurre egiteko.

Cubainformación eta Euskadi-Cuba elkarteko kideei sei urteko kartzela zigorra ezarri nahi diete (argia.eus)

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/cubainformacion-eta-euskadi-cuba-elkarteko